ANAITASUNA-KO ADIERAZPEN POLITIKOA

Ikuspuntu objektibo batetik Euskal Herriko egungo egoera politikoaren azterketa egin nahi duen edonorentzat, egoera hori bi egiaztapen ukaezinetan laburbildu daiteke:

Batetik, Estatu Espainolak, herri gisa dagokigun onespena ukatzeaz gain, mugarik gabeko errepresio bortitzari ekin dio (ilegalizazioak, egunkarien itxierak, hauteskundeetako putxerazoa, torturaren erabilpen sistematikoa...). Estatu Frantziarrak, berriz, errepresioan aurrera egin, eta Lapurdi, Zuberoa edo Behe-Nafarroatik egiten dizkioten eskaerak mespretxatu eta ukatzen ditu. Batak zein besteak, gure herriarentzat hain beharrezkoa den eskenatoki demokratikoa galarazten saiatzen ari dira, eta saiakera hori agerian uzten dute. Egun, Estatuek inposizioa, errepresioa, mespretxua eta indarra besterik ez digute eskaintzen eta erakusten. Haien indar bakarra estatuaren indarra da, eta, ondorioz, beren alternatiba bakarra.

Bestetik, gure herriaren geroa oinarri nazional eta demokratikoetan ezartzeko helburuarekin, eztabaida politiko garrantzitsu bati ekin eta garatzen hasia da. Egun, gure etorkizun politiko, ekonomiko, kultural edota instituzionalaz aritzerakoan, herritarren borondatearen errespetua eta Euskal Herriaren hitza eta erabakiaren garrantziaz hitz egiten da.

Eztabaida honek gure bizitza politikoaren atal garrantzitsuak barneratu ditu, eta erakunde zein foro ezberdinak horren adierazle edo hartzaile bilakatu dira jada. Berriki martxan jarritako Nazio Eztabaida Guneak, Euskal Erkidego Autonomoko legebiltzarrean martxan jarriko den eztabaidak, Batera plataformak abian jarri duenak, edota orain dela hilabete batzuk Lapurdi, Zuberoan eta Behe-Nafarroan indar abertzaleetako herritarren artean irekitako eztabaidak, gure bizitza eta eztabaida politikoaren bizitasuna erakusten ditu.

Ondorioz, esan dezakegu Euskal Herrian herritar ugarik eskenatoki berri bat lortzeko bidean lan eta borroka iraunkorra egiten duten bitartean, Estatuak bere baliabide guztiak erabiltzen ari direla aldaketa politiko hori galarazteko.

Zalantzarik gabe, bizi dugun errealitate hau 1998. urtean irekitako prozesuaren ondorioa da: bere garapen zein heldutasunerako urrats berriak eskatzen dituen euskal prozesu demokratikoa.

Horregatik, eta abagune garrantzitsu honen erdian, ezker abertzaleak, eta beste lehentasunen gainetik, ardura politikoarekin aritzeko konpromisoa berretsi nahi du, eta gainontzeko eragileei eskaera bera luzatu nahi die.

Jabetzen gara bizi ditugun une gogor eta mingarriez. Jakin badakigu errepresioa bortitza dela oso, eta azkenaldian batzuen aldetik probokazioa eta jarrera arduragabea besterik ez ditugula ikusten. Nola ulertu bestela Ertzantzaren eskutik jasaten dugun tratu eta jarrera? Nola ulertu bere burua abertzale eta aurrerakoitzat dutenak apartheid politikoaz baliatzea?

Hala ere, zinez uste dugu irekitzen ari den aukera politikoaren aurrean, gure printzipioei tinko eutsi, jarrera horiek salatu, eta erantzun sendoa emateaz gain, gure akordiorako jarrera irekia zein borondatea agertzeko ekimenak ere eskatzen dituela. Pairatzen dugun gatazka politikoari zein herri gisa ditugun oinarrizko arazoei irtenbideak eman nahi dizkioten sektore politiko, sindikal zein sozialei eskua luzatu nahi diegu, soluziobideekiko dugun gure konpromisoaren adierazle gisa.

Zentzu horretan, ziklo autonomikoa agortzean irekitzen den aro berri honen oinarrietako bat, erresistentzia jarrera soila baino, eskenatoki demokratikoa helburu duten indar herritarren metaketa behar duela izan uste du ezker abertzaleak. Horregatik aurrera begira eta publikoki, Estatuei erantzun eta jarrera probokatzaileen salaketa egitearekin batera, proposamen positibo eta eraikitzaileak aurkezteko konpromisoa hartzen dugu, eguneroko lan eta borrokan geroz eta gehiago izan gaitezen gatazkaren konponbide demokratikoaren aldekoak.

Horregatik, gaur ezker abertzaleak ardura guztiarekin honokoa azaldu nahi du:

a) Ziklo autonomikoaren amaierak zein Euskal Herri osoan piztutako eztabaidak, gure Herria estatu espainol zein frantziarrarekin

aurkakotzen dituen gatazka politikoa gainditze bidean jartzeko baldintza objektiboak sortzen hasiak direla erakusten digute.

b) Une erabakior baten erdian aurkitzen garen honetan, berriz ere gatazka konpondu ez eta gure seme alabei urteetarako iruzur berri bat eskaintzea akats larria izateaz gain, arduragabekeri galanta izango litzatekeelakoan gaude.

c) Gatazka politikoa gainditzea zein herri gisa bizirauteko behar ditugun soluziobideak bilatzen hastea behar politiko eta lehentasun historikoa duen eginbehar kolektiboa behar du izan.

Ondorioz, ezker abertzaleak honakoa proposatu eta publikoki jakinarazi nahi du ere:

1.- Herri honek bizi duen gatazka politikoari irtenbidea eman nahi dioten eragile politiko, sozial eta sindikalei era formal batez elkarrizketarako deia luzatu nahi diegu.

2.- Aipatu elkarrizketa prozesuak bazterketa zein baldintzarik gabekoa beharko du izan.

3.- Gure ustez, elkarrizketa politiko honen helburua gatazkaren konponbidea zein honen ondorioz herri honek dituen oinarrizko arazoen inguruko soluziobideetaz aritzea izango litzateke.

4.-Era berean, ezker abertzaleak azpimarratu nahi du egun herritarren aurrean aurkeztu eta eztabaidagai jartzen ari diren proposamen ezberdinetan aipatzen ari diren kontzeptuak elkarrizketa politikoaren hasierarako oinarri garrantzitsuak izan daitezkeela, besteak beste, ezker abertzalearentzat gatazkaren konponbiderako giltza bera direlako. Horrela, Euskal Herria, zazpi herrialdeak, autodeterminazio eskubidea, eskubide zibil eta politikoen nazioarteko hitzarmena edota biolentziarik gabeko herri galdeketa bezalako kontzeptuak urtetan gure adostasuna izan duten planteamenduak dira eta egun hitz egiten hasteko oinarri erabat baliagarriak.

Bazterketa eta baldintzarik gabeko elkarrizketaren bitartez, gatazkaren konponbiderako denon arteko plana eta prozesua eraikitzea da gure erronka. Elkarrizketa horretara jarrera eraikitzailearekin lotu nahi dugu, eta inork ehuneko ehunean arrazoia ez duela jabeturik. Soilik horrela egin ahal izango dugu adostasunaren bidean aurrera.

Iruñean, 2003ko azaroaren 1ean

.